


noaua

**Ingemarreko langileak:
“Akordio duin bat lortu
dugu”**

**‘Errigora’ kanpaina
abiatzera doa**

**Igande honetan,
Mundualdia**



**Aurrera doaz
erraustegia eraikitzeko lanak**

www.behetik.com

**Eskailerak igotzea...
ez da oztopo!**

·plataformak ·igogailu bereziak ·aulki bereziak...



behetik

Añorga-txiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888



New York

**AZKEN
PLAZAK!**



**NOAOAK
BIDAIK**

943 373 613

ABENDUAREN 3TIK 10ERA
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

ARATZ
zabaleta anaiak



25 urtez baserritar eta Arrantzaleekin zuzenean lan egiten
·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04

Albiste iruditan

Koldo Almandozen film berriko pasarte asko Usurbilen ari dira grabatzen

Usurbilgo Lanbide Eskolakoek igorri digute ondoko argazkia. Koldo Almandoz zinegilea eta bere lan taldea *Oreina* izeneko pelikula ari dira grabatzen egunotan. Filmeko pasarte batzuk Lanbide Eskolan erregistratu dituzte.

Ez da gure inguruko lokalizazio bakarra izango. Asteotan, Aginagan eta Txokoalden ere ibili baitira irudiak hartzen. Luzemetriak bi anaien arteko egoera gatazkatsuen istorioa du oinarrian. Lanbide Eskolako ordezkariak aditzera eman digutenez, "bitxia izan da bertako langile zein ikasleentzat grabaketa zuzenean ikustea".



Koldo Almandoz (erdian) Lanbide Eskolaren atarian, bere lan taldeari azalpenak ematen.

Laburrean

Artisautza Azokarako postuak prest

Ia 30 bat artisau animatu dira azaroaren leian ospatuko den Artisautza Azokan parte hartzera. Tartean herritarrak ere izango ditugu haiek landutako produktuak erakusten.

Igande honetan, 1946an jaiotakoen bazkaria

Urriaren 22an, Antxeta jatetxean. Otorburako izena eman nahi duenak, urriaren 19ra arteko epea du. Laurok liburu dendan apuntatu daiteke edo 943 36 34 48 telefono zenbakira deituta.

1967koen bazkaria azaroaren 11n izango da

2017an 50 urte betetzen ari diren herritarrentzako gonbita. "Laster elkartu egingo gara oroituz ospatzeko. Azaroaren 11: 1967ko kintoen ospakizuna. Eman izena Kaffan, urriaren 29a baino lehen".

noaia

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaia.eus // www.noaia.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaia.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaia.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Luken Arkarazo

O. M

Udako parranda gau bero batetik, gaur arte, laster hamar urte. Bajera batean lau nerabe ezjakin eta hasiberri, anabasean, saltseatzen, kezka barik. Denborak ihes egiten du, hatzen artetik. Orduztik, desafino eta euri jasa ugari, hamarnaka doinu eta abesti, ehunka entsegu eta izerdi, margo bereziz pintatu eta bizitza eman diegu hainbat ametsi. Apurtu ditugu, elkarrekin eta zutik, beste hainbeste harresi. Izarrak gabeko gauak argituz, nor garen deskubritzeko helburuarekin.

Horixe da Odolaren Mintzoa, gure mundua, paradisu galdua, bat gehiago zarela sentiarazten zaituen gaixotasunaren aurkako antidotoa, urte askotako ardo goxoa. Oholtza, gainera, igo aurreko

dar-dar irmoa, huts egitearen mehatxu trinkoa, biharamunekon konpromezuen lekukoa. Bide luze batean iparrorraz inprobisatua, ekaizpean aterpe, basamortuko ur putzua. Arrakastaren eroalerik behar ez duen ibilgailu zintzoa, errepidean tinko, ezerren truke eta ilusioen menpeko.

Hamarkada bateko bizipezez beteriko markoa, horixe da Odolaren Mintzoa. Ezberdina, ez inorren mirabe, ez inorren esklabu. Aske edo askatasunerantz, betirako gau ilunetan zehar, bakarrik ere etsipenaren aurka borrokatzeko gai. Arnasestuka bada ere, egokitzeo ahalmenaren jabe, harrapatuta denean, bide zaharrak topatzearen zale. Pasa ditugu mila istorio eta pasarte, izan ginena sekula ahaztu gabe. Haietako bakoitzean gauzak egiteko beste modu bat badagoela

erakutsi dugu etengabe.

Eta gaur, oraindik hemen gaude, optimistenaren presarioak leherrarazten, ibili, erori eta altxatzearen oinarrizko legearen ikasleak. Horiexek gara gu, Odolaren Mintzoako kideak, elkarrekin bidean goazen XXI. mendeko gazteak. Beti amestearen alde, beti etsipenaren aurka. Galdugenuena berreskuratzeko xedez bueltatu gara, inoiz joan ez bagina bezala. Bide berriak arakatzuz, arriskuak hartuz eta ausardiaz jokatzuz, gure barrenak hustu eta zuenak betetzeko asmoz. Mezua eta pasioa, horra hor gure lezioa, gure prezioa. Exijitzeko zilegi den gutxienekoa.

Zuzenekoetako begirada konplizea, entseguetako nekea. Guk sorturiko zure abestiak, zuk abesturiko gure hitzak, bion hitzak. Azken fi-

nean, horixe baita Odolaren Mintzoa, hartu eta eman, hustu eta bete, jaio eta hil. Orrialdeak betez, nahigabe, elkarrekin. Ametsak egi bihurtzeko makina trebatua, negurik gorrienerako sutondoa, bihotzeko zauriak sendatzeko ukendua. Azalean zein barnean utzitako orbanen harro sentiarazten zaituen horietakoa.

Belaunikatzeko arrazoi bakoitzeko, hamaika badiarelako zutik mantentzeko. Amore ematearen esanahia borrokatzen eta maitatzen, gure hiztegietatik ezabatu genuelako. Mundu hau salbatzeko, bat eginik, mila arrazoi badiarelako. Gurekin abestera gonbidatzen zaitugu, ez eduki beldurrik, bada-kizu, izuaren menpe, izozturik, kateak beti egongo dira bermaturik.

Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Garazi Lizaso Manterola | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | **Luken Arkarazo**

Ika-mika

Franco hil zen, erregimena ez. Urriak 12, gazteok ezer ez ospatzeko!

Urriak 12, hispanitatearen eguna. Espainiar estatuak iragan basatia harrotasunez aldarrikatzeko darabil egun hau.

1492.urtetik aurrera Ameriketaren barrena sarraski ugari gauzatu zituen inperio berdina 1512. urtean Nafarroa menpean hartu zuen indarrez. Orduetik hona, hamaika izan dira gure hizkuntza, kultura eta burujabetza nazionala ezabatzeko egindako ahaleginak. Dena den, urteetan zehar Euskal Herriak bizi nahiaren borroka ezin dio aurre espainiar inposizioari.

Franco hil osteko erreforma politikoa mendeetako kultura politikoi jarraipena eman zion. Euskal Herri zatikatua, nazio gisa ukatua, autodetermi-

nazio eskubidea debekatua eta eredu neoliberalaren inposizioa izan dira 78ko erregimenak Euskal Herriari eskaini dizkionak. Gatazkaren luzapena, errepresioa eta sufrimendua. Biak ala biak, burgesia erregionalistaren "zipayismo" politikoa lantzen guntzaz.

Gaur, inoiz baino gehiago, espainiar batasuna auzitan jarritz inposizioan oinarritzen den dominazio sistema osoa ere zalantzan ipintzen da. Justizia sozialaren eta askatasun indibidual eta kolektiboen alde borrokatzen dugunontzat, espainiar inposizioarekin haustea ezinbesteko urratsa da erroko ariketa demokratikoa eman ahal izateko. Horregatik, Euskal Herriak beharrezkoa duen

bizi eredu askatasunez erabakitzeo duen eskubidea aitortu gabe, ez dago gatazka politikoa gainditzetik.

Autodeterminazio eskubiderik gabe, eta nazio burujabetzarik gabe, Euskal Herriari ezinezkoa zaio emantzipazio sozialaren alde eta bestelako jendarte eredu baten alde urrats erabakigarriak ematea. Ate guztiak irekitzen dituen giltza da independentzia. Hala, autodeterminazio eskubidearen alde egiten duen egiazko egitasmo bakarra independentziaren aldeko egitasmoa da.

Hispanitatearen eta indar okupatzaileen oldarraldirako eguna da urriaren 12a, egun handia. Euskal gazteriarantz atzotat aldiz, inposizioari aurre

egiteko borroka egun bat da. Euskal Herriarentzako prozesu independentista aldarrikatzeko eguna dugu, Kataluniak irekitako bidea bihar Euskal Herriak jorratu dezan.

Katalunian egin bezala, herri desobedientziaren erantzun diezaiozun espainiar inposaketari. Eraiki eta borroka dezagun gure oraina egunez egun, bizirik dagoen Euskal Herri bizi gaitez. Franco hil zen, baina erregimena ez. Usurbilen ikur frankistarik ez! Irten gaitez kalera erregimenarekin haustera eta Euskal Herria independentziaren ortzimugara eramatera. Desobedientziaren haustura. Independentziara! Aurrera!

Ernai Usurbil

Ingemarreko langileak: “Akordio hau langileon, Udalaren eta usurbildarren presioari esker iritsi da”

Lan-ikuskaritzak langileei arrazoia eman ondoren, enpresa kudeatzaileek langileen hainbat baldintza onartu dituzte.

Ingemarreko langileek irtenbide “duina” borrokatu eta enpresa Usurbilen jarraitzea lortu ondoren, Usurbilgo udalak eta Ingemarreko langileen ordezkariak agerraldia eskaini dute egoeraren berri eman eta bien artean izan duten harremanaren berri emateko.

“Akordio duin bat lortu dugu”

“Akordio hau lortu badugu, langileon, Usurbilgo udalaren eta usurbildarren presioari esker izan da. Ez da guk desio genuen akordioa izan langileen erdia kalera doalako, baina esan dezakegu akordio duin bat lortu dugula, eta horrek ahalbidetuko digula lanean jarraitzea. Duela hilabete batzuk genituen aurreikuspenak hobetu dira, eta hori ez da gutxi”, adierazi dute enpresa batzordeko ordezkariak.

Gehiengoaren babesarekin

Izan ere, “denbora askoren ondoren”, uztailaren 28an akordioa sinatu zuten, eta adostasun hori epaile batek auto bidez berretsi zuen. Horren garrantzia nabarmendu dute langileek. 2002. urtean hasi zen gatazka horrek hainbat fase ezberdin bizi izan ditu, 2006an



“Guretzat ere garrantzitsua da enpresa hori herrian geratzea, eta genituen aurreikuspenak ikusita, garaipentzat hartu dezakegu”, Xabier Arregi alkateak aditzera eman digunez.

AKORDIOA

“Akordio horri esker, 36 langile kaleratu eta 35 mantenduko dira, zituzten aurreikuspenak hobetuz”

hasi zuten lehen greba “indartsua”, esaterako. Uztaileko akordioarekin, berriz, bertan behera utzi zuten sei hilabetez iraun duen azken greba. Akordio horri esker, 36 langile kaleratu eta 35 mantenduko dira,

zituzten aurreikuspenak hobetuz. Kaleratutako langileei, berriz, adinaren araberako indemnizazioak eskaini dizkiete. Azken akordio proposamena “gehiengo handi batez” onartu zuen langileen asanbladak.

Negoziaketen emaitzak

Xabier Arregi Usurbilgo alkatearen iritziz, “langileek batasunetik ondo kudeatzen jakin duten gatazka luze zein mingarria izan da hau, eta hori oso goraiatzekoa da. Guretzat ere garrantzitsua da enpresa hori herrian

geratzea, eta genituen aurreikuspenak ikusita, garaipentzat hartu dezakegu, langileen erdiak lanean jarraituko duelako baldintza duin batzuetan”.

Lan-ikuskaritzak langileei arrazoia eman ostean, enpresa kudeatzaileek langileen hainbat baldintza onartu dituzte. Esaterako, zuzendaritzak bereiak aukeratutako 28 langile mantentzea eskaini zuen, eta negoziaketen ondorioz, kopuru hori 35era igo eta langileek aukeratu ahal izan zuten kanporatuen zerrenda.

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUISIA 10- atzekoaldea
943 372 795

AMA, EZ LARRITU TA DEITU XABIERRI, ETXETRESNAK KONPONTZEN DITU
645 417 665

ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Erraustegiko eraikitze lanak, etenik gabe aurrera

Urte luzez hutsik zegoen Zubietako gaineko zuloa hormigoez betetzen hasiak dira. Gerturaturikoe edo bestela, mendi ingurura igo direnak jabetuko ziren, udaz geroztik garabiez betetzen joan dela erraustegia eraiki nahi duten eremua. Maiatza amaierako Zubietako Erraustegiaren Aurkako Egunaren baitan gune horretara bertara antolatu zen martxa jendetsuan parte hartu zutenek ikusi zuten inguruneak zer ikusi gutxi du egungo itxurarekin.

Etenik gabe dabilta lanean, egutegian gorritz ageri zaizkigun jai egun ofizialetan baita. Zubietako ingurutik gorantz, edo menditik beherantz, erraustegitaren zero gunerantz gerturatu ahala lau hizkuntzetan, euskaraz, erdaraz, ingelesez eta frantsesez idatzitako kartelek lanak abiatu direla ohartarazten digute.

Hesituta dago ingurua

“Kontuz lanak inguruan! Ez



Etenik gabe dabilta lanean, baita egutegian gorritz ageri zaizkigun jai egun ofizialetan ere.

AZPIEGITURAK

“Erraustegia eta harekin batera eraikiko diren gainerako azpiegiturak, 2019rako eraikiak eta martxan jarri asmo dituzte”

irten markaturiko bidetik”, diote. Hesitua dute inguru osoa.

Gogoan izan, erraustegia eta harekin batera eraikiko diren gainerako azpiegiturak, 2019rako eraikiak eta martxan jarri asmo dituzte.

Beste egitasmoak, geld

Erraustegitaren zero gunean etenik gabe lanean dabilta artean, itxuraz behintzat mantsoago doaz, mendiz bestaldeko zulo erraldoiko obrak.

Bertan kokatu asmo dituzte makrokartzela, industriagune bat edota baita hainbat etxebizitza ere.

Gas hodiak, mendian gora

Erraustegirako eta inguru hartako gainerako proiektuentzako gas hodiak sartzeko, egun batetik bestera, alde zuzenetik jakinarazi gabe, Santuenea eta Zubietako arteko bidea itxi zuten uztailla hasieran, oinezko zein ibilgailuen joan etorria edota hainbat bizilagunei txera sartzeara eragoziz. Hainbat zerbitzu ere, autobusarena edota hondakinen bilketa zerbitzua desbideratu behar izan zituzten.

Zubietako Herri Batzarrak, Usurbilgo Udalak eta hainbat herritarrek salatu zuten egoera. Handik egun gutxira partzialki ireki zuten bidea berriz. Lanak udako hilabeteetan egin zituzten. Lehenbizi Santuenea eta Zubietako arteko herri bidean. Gerora, handik mendian gora lurperatu dituzte gas hodiak.

Urriaren 26an, erraustegiaren aurkako autokarabana

Aurreko maiatzean egin zuten moduan, “irteera operazio” berria iragarri du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak urriaren 26rako; erraustegiaren aurkako eta alternatibenez aldeko 2. Barraskilo Operazioa. Aipatu moduan, hilabete azken ostegunerako iragarri dute hitzordu honen edizio berria. Arratsaldeko 18:00etan abiatuko da autokarabana ekimen hau Belartzatik, Decathloneko errotondatik.

Estreinakoa maiatzean egin zuten, Zubietan antolatu zu-

ten Erraustegiaren Aurkako Egunaren bezperatan. Belartzatik abiatu eta eskualdeko errepideetan barrena ibili ziren, mugimenduak berak Gipuzkoa Zutikekin elkarlanean antolaturiko ekimenean, erraustegiaren aurkako aldarria zabaltzen.

Oraingoan ekimena indartu asmo dutela iragarri dute. “Bardator II. Barraskilo operazioa! Oraingoan berrikuntzarekin, indarra egingo dugu herrietan, nabaria izan dadin gure presentzia”, adierazi dute sare sozialen bidez. Ordutegien be-

rri laster emango dutela iragarri duten arren, aurreratu dutenez, “deialdi bereziak egingo ditugu herrietan bizikleta, patin, traktoreekin parte hartzeko... Joan prestatzen Lasarte-Oria, Zizurkil, Villabona, Andoain, Urnieta, Hernani, Añorga eta Antiguoko herritarrek”.

Datozen mobilizazioak

Ugaritzen doaz erraustegiaren aurkako mobilizazioak. Urriaren 26ko II. Barraskilo Operazioaren aurretik, manifestazioa

deitu du Ernaik larunbat honetarako, Andoainen:

Urriak 21, larunbata

12:30 Manifestazioa Andoingo Goiko Plazatik, “Zuen errautsetan itoko zarete. Erraustegirik ez!” aldarripean. Deitzailea: Ernai.

Urriak 26, osteguna

18:00 Erraustegiaren aurkako 2. Barraskilo Operazioa Belartzatik, Decathloneko errotondatik. Antolatzailea: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.


Auzitara eramango dituzte, erraustegia geratu izanagatik

EAJ-PNV eta PSE-EE-ko ordezkarien aldeko bozkekin, aurreko legegintzaldian erraustegiko lanak bertan behera utzi zituzten kudeatzaileak auzitara eramatea onartu zuen Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak (GHK) joan den astelehenean egindako asanbladan.

Erraustegia eraikitze kontratua eteteen, hainbat enpresei kalteordainetan emandako 8,2 milioi euroak bere gain hartu eta diru hori itzultzea eskatuko die GHK-k, Ainhua Intxaurrandieta GHK-ko lehendakari ohiari eta GHK-ko Administrazio Kontseiluko kide eta aurreko legegintzaldiko Ingurumen diputatu Iñaki Errazkini.

SWAP afera

Kalte ordainetan emandako dirua soilik ez, erabaki horrek izandako eraginen kostua ere



Erraustegia eraikitze kontratua eteteen, hainbat enpresei kalteordainetan emandako 8,2 milioi euroak bere gain hartu eta diru hori itzultzea eskatuko die egungo GHK-k Ainhua Intxaurrandieta eta Iñaki Errazkini.

bere gain hartzea eskatzen die GHK-k: Inbertsioen Europako Bankuak emandako finantzaketan edota hilerio SWAP-ek eragindako 600.000 euroko gastuak, GHK-tik diotenez.

Demanda berehala jartzekoak ziren, horretarako astearterako epea omen zuten eta, GHK-k berri eman duenez. Auzitara jo-

tzeko erabaki honen aurka agertu ziren EHBilduko ordezkariak. Mendeku bila aritzea leporatu die EAJ eta PSE-EEri. Ainhua Intxaurrandieta eta Iñaki Errazkin herri mandatuia betez jardun dutela adierazi dute, eta epaitegiak interes alderdikoiatarako baliatzea egotzen die Foru Aldundiko agintariei.

Eusko Jaurlaritzak neurriak hartuko ditu ke-isurketa gehiago eman ez dadin

Ke isurketen gaiak jardun zuten Udalak eta Eusko Jaurlaritzak urriaren 16an egin zuten bilkuran. Sailburuordeak onartu du gai honetan duten erantzukizuna, "eta hitz eman du neurriak hartuko dituztela ez dadin gehiago kerik isuri behar bezala iragazi gabe", udal iturriek aditzera eman dute.

Udalak NOAUA!ri igorri dion idatzian dioenez, "urriaren 16an Eusko Jaurlaritzako

Ingurumen Sailburuorde Elena Morenorekin bildu da Usurbilgo Udala, eta bileran aditzera eman zaio ke isurketek eragindako egoeraren larritasuna. Usurbildarron kezka gero eta handiagoa da, eta udalak premiazko eta presazko neurriak eskatu ditu. Bileran ke-isurketa kontrolik gabekoak landu dira bereziki, eta bi puntu nabarmendu dira: batetik, gaur egun teilatuetatik aireratzaren diren keak onartezinak eta legez kanpokoak direla, eta, bestetik, tximinietatik

ateratzen diren keen kontrola ere areagotu beharra dagoela. Elena Moreno sailburuordeak onartu du gai honetan duten erantzukizuna, eta hitz eman du neurriak hartuko dituztela ez dadin gehiago kerik isuri behar bezala iragazi gabe. Hitz eman du, halaber, laster batean jakinaraziko diotela Usurbilgo Udalari zein neurri hartuko dituzten".

Bien bitartean, Usurbilgo Udala ari da enpresa behartzen "konponbideak martxan jar ditzan".

Alegazio bilketa, garraio zerbitzu publikoen murrizketen aurka

Urriaren 23ra arteko epea dago Gipuzkoako Foru Aldundiak landu duen aurreproiektu baten arabera, garraio zerbitzu publikoetan aplikatu asmo dituen murrizketen aurkako alegazioak aurkezteko. Alegazio orriak usurbil.eus atarian edo Usurbilgo Udaleko errejistroan eskura ditzakezue. Gogoan izan, Gipuzkoa mailan hainbat zerbitzuetan eragingo luketela murrizketok. Gure inguruan, ospitalera doan autobus zerbitzua eteteko asmoa du Aldundiak. Bestalde, Hernanira doan autobus zerbitzuko ibilbidetik aldiz, Zubieta eta Santueneko geltokiak ezabatzea. Usurbil, Hernani eta Andoaingo Udalek murrizketok bertan behera utzi eta gai honi konponbide adostu bat ematea eskatua diote Aldundiari.

Galizia eta Asturiasko suteen arrastoa

Kezka eragin zuen urriaren 16an, arratsaldeko lehen orduetan usaindu zitezkeen erre usainak eta ikus zitezkeen keak. Suterik ordea ez zen inguruotan.

Sinesgaitza badirudi ere, Eusko Jaurlaritzako larrialdi zerbitzuek, SOS Deiak ek gertatzen ari zena argitu zuen. "Kea nabaritzen bada Galizia eta Asturiasko suteetatik dator. Jarraipena egiten. Arazorik ez", mezu hauxe bera zintzilikatu zuten sare sozialetan.

Arratsaldean zehar egoerak nabarmen egin zuen hoberrantz.

“Garrantzitsua da iritsi ez garen eragile

Informazioa, formazioa eta bikote zein bakarkako aholkularitza sexologikoa eskaintzen du duela sei urtetik Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak. Guneako arduradun Elena Jimenez sexologoarekin bildu gara. Abiapuntura itzuli asmo dute ikasturte berri honetan, eragile zein norbanako gehiagorengana heltzeko asmoz.

NOAUA! Sei urte bete ditu Sexu Aholkularitza Guneak. Bere lekua egin du zerbitzu honek herri mailan?

Elena Jimenez: Baietz uste dut. Halere neurtzeko garaian gaia berezia dela kontuan hartu behar dugu. Askotan diot, normalean psikologoarengana joan egiten gara baina gutxitan esaten dugu. Sexologora joan zarelara aitortzea oraindik zailagoa da.

Gaiak tabua izaten segitzen du. Halere horma ikusezin hori gutxiarik pitzatzen hasi da Sexu Aholkularitza Gunea?

Baietz esango nuke. Azken finean urtez urte herritar ezberdinekin egin dugu lan. Gertuagotik elkar ezagutu eta konturatu gara, ez dela beharrezkoa ezta ere gai hauek lantzeko edo gai hauei buruz hitz egiteko oso gaizki egotea. Ditugun interesak ozen adierazi eta lantzeko aukera izan dugu.



Sei urte bete ditu Sexu Aholkularitza Guneak. Elena Jimenez bertako arduradunarekin hitz egin dugu.

ELENA JIMENEZ

“Arrazoi ezberdinek bultzatuta etor daiteke Sexu Aholkularitza Gunera. Kezkak; sexualitatearekiko, gure buruarekiko edo harremanetarako zailtasunak; interesa, jakinmina...”

Erabiltzaileen artean nolabaiteko profilik zehaztu daiteke?

Ez nuke profil bat zehaztuko zuk aipatu duzunarengatik. Perfil ezberdinak egon daitezke, arrazoi ezberdinek bultzatuta etor daiteke Sexu Aholkularitza Gunera: kezkak; sexualitatearekiko, gure buruarekiko edo harremanetarako zailtasunak; interesa, jakinmina; garapen pertsonala...

Elkarlana sustatu duzue urteotan. Ze kolektiborekin bideratu duzue lanketa?

Egia da emakume gehiago hurbiltzen direla, bai Usurbilen eta oro har. Garapen pertsonalarekin lotutako gaiak lantzerantz ohituagoa egon da emakumeen kopuru handiago bat. Baina gizonezkoak ere agertu dira. Bestalde, 6 urteotan adin tarte guztiak ukitu ditugu. Lehen urteetan, jubilatuta edota Esperientzia Eskolarekin hasi ginen. Jende asko hurbildu zen, modu oso ludikoan egin genuen. Herritar guztiei zuzenduriko hainbat ekimen ere bideratu ditugu; erakusketak, “desiren putzua”... Emakume heldu eta gazteekin lan egin dugu. Jolas, grin eta jostailuei buruzko pare bat hitzaldi eman genituen, haurdunaldiaren

etenari buruzkoa, nola eraikitzen joan den emakumearen gorputza. Tailerrak eman, eta tailer batzuk egin ditugu liburutegiarekin, emaginaren eskutik bikotetik familiarako bide horretan ematen den faseari buruzko saioak... Gaztetxekoekin dagoen ereduaz hausnartu genuen, Gaztelekukoekin norbere gorputza ezagutzeari eta desioak kudeatzeari buruzko saioak. Gurasoekin dezente egon gara. Gurasoen figura ardatz nagusia da ume eta nerabeengan eta garrantzitsua da sexualitatea jorratzea, neska mutil izateko moduei ze espazio uzten diegun...

Bada beraz gai hau jorratzeko desioa eta gogoia. Halere sexualitateaz naturalki hitz egitea kostatzen zaigu oraindik.

Bai kostatzen zaigu. Gaur egungo eredu zurruna da, baina errealitatea askoz malguagoa eta aberatsagoa ere. Gure buruari planteatzen badiogu zenbat denbora ematen diogun gozamenari, urria dela ikusiko dugu. Dedikazioa ere eskaini behar zaio gai honi. Desiretan ez da hain garrantzitsua on edo txarrak izatea, desirak desira baitira, emozioak bezala. Beste kontu bat da nola kudeatzen ditugun. Noraino eta nola eraman daitezkeen errealiterara.

“Denok ditugu gure alderdi maskulino eta femeninoak”

NOAUA! Barneratua dugun eredu ere deseraike beharko dugu.

Elena Jimenez: Gauza asko bai eta beste gauza batzuei balorea eman beharko zaie. Bi alde horiek. Gauza batzuk agian gainetik kendu behar ditugu zurrinak direlako eta ez baitatoz bat gure buruarekin. Beste batzuei balioa eman, balore bezala hartu,

apreziatu.

Identitateari buruzko eztabaida plaza publikoan dago azken aldian. Lehen urratsa eman da?

Gai guztiokin egon gara eskoletan eta gurasoekin ikusten, sexualitatea eta identitatea zer den, transexualitate egoerak, hori guztia lantzen.

Guztiz lotua dago hezkidetza-rekin, nolakoak garen neskak eta mutilak, ez direla hain muturreko gauzak. Denok ditugu gure alderdi maskulino eta femeninoak gure baitan. Hor badago lanketarako eremu oso interesgarria eta klabe handi bat. Azken urte hauetan asko hitz egiten ari gara identitatearen inguruan

eta hori da klabeetako bat. Klabea da norbera ezberdina dela dela onartu eta nolakoak den jakitea. Azken finean hortik etorriko da, begirunezko harremanetza, gus-tura egotea eta norbera benetan den bezalakoa izatea. Gozamina, ondo egotea eta ondo pasatzea, beti hortik etorriko dira.

eta norbanakoengana gerturatzea”

NOAUA! Sexu Aholkularitza Gu-nera lehen aldiz doanari nola aurkeztuko zenioke zerbitzua?

Elena Jimenez: Sexualitatearekin lotutako edozein galdera ikurrari lagunduko dion zerbitzua dela esango nuke. Izan daiteke, jakinminetik, kezkatik, garatzeko gogotik. Etor zaitezke liburu, film edo bibliografia eske. Edo entzun duzun gairen bati buruz galdetzeko. Etor zaitezke seme-alabengatik edo bikote harremanen gorabeherengatik, edo ez dut argi neskak, mutilak, denak ditudan gustuko, zer sentitzen naizen...

Ikasturteari begira herri mailan ezagutarazten segitzeko egitasmoa duzue esku artean.

Neurri handi batean abiapuntura itzuliko gara, garrantzitsua da iritsi ez garen eragile eta norbanakoengana gerturatzea. Halako zerbitzu batek benetan gaudituko ditu zailtasun edo tabu horiek. Hori da gure erronka nagusia, berriz kontaktatzea aisialdiko taldeekin, gazteekin, gunee eta talde ezberdinengana hurbiltzea. Beraien behar edo gogoak ezagutzeko, horiek entzun eta



“Guk beti diogu halako zerbitzuak ez direla kopuruetan neurtzekoak, kualitatiboki neurtzekoak baizik”. Urriaren 27rako antzerkia eta solasaldia antolatu dute Sutegin.

ANTZERKIA ETA SOLASALDIA

“Gauzak gaizki jartzen direnean umore puntu bat izateak laguntzen du beti. Animatu eta hurbildu urriaren 27an Sutegira. Entzuteko, dauden behar eta gogoen berri jasotzeko prest gaude”

bidea ematen saiatzea. Jende askorengana iritsi gara, urtero

150 lagunengana, zeharka beste erakusketa eta sare sozialen bidez askoz gehiagorengana. Baina bada hainbat jende ere zerbait entzun arren, oso garbi ez duena.

Jende horrek hilaren 27an du aukera Sutegin zer den zerbitzua.

Bai eta barre egiteko ere, konplizitate, konfiantza eta umore giroan. Gauzak gaizki jartzen direnean umore puntu bat izateak laguntzen du beti.

Animatu eta hurbildu urriaren 27an Sutegira. Entzuteko, dauden behar eta gogoen berri jasotzeko prest gaude.

Usurbilek badu herri txiki gisa, berezitasunik zerbitzu honen erabilerari edo antolatu dituzten ekimenen parte hartzeari dagokionez?

Baloratzerako garaian, ziur aski ez da gauza bera herri handi bat hartzea, non anonimotua lagungarria den. Azken finean denok nahi genuke tabu ez izatea baina norberari tokatzen zaionean tabu hori haustea zailagoa da. Halako herri txikietan diogu itxiak gabela. Bagara eta ez. Hona datorren jendea hemengo da, etorrira esfortzu bat egiten du. Hori baloratzerako, hizki larriz jartzerako da. Guk beti diogu halako zerbitzuak ez direla kopuruetan neurtzekoak, kualitatiboki neurtzekoak baizik. Etor dadila beraz, behar izan edo gogo duenak. Hainbat guneeetan lanketa hasi ostean, baliabide honen balioa jendeak baduela konturatu gara eta behar duenean hartuemanetan jartzen da gurekin.

“Sexijentziak askatuz” antzerkia eta solasaldia

Sexu Aholkularitza Gunearen seigarren urtemugari begira, gunea ezagutarazi eta tarte atsegin bat igartzeko antzerki eta solasaldia antolatu dute:

- Eguna: urriak 27, ostirala.
- Ordua: 18:30.
- Tokia: Sutegiko auditorioa.
- Zehaztasunak: Sexu Aholkularitza bulegoaren ibilbidearen inguruko solasaldia eta “Sexijentziak As-

katuz” antzerkia. “2016, urtean Donostiako Poltsikoko Antzerkiaren Lehiaketan, bigarren saria jaso zuen Bazan Behin Clown konpainiaren lan honek. Sexu harremanen inguruko gaia jorratzen duen formatu txikiko antzezlan da. “Pituxak ez du orgasmoirik. Era ezberdinetan ibili da irtenbide bila eta publikoari bizitakoa kontatzen dator. Zein betebeharrak eta exijentzia sortzen zaizkigu harreman

erotikoetan? Ba al dakigu zein den gure benetako desira? Edota gizarte estereotipoen pean gaude?”.

- Aktorea: Itziar Saenz de Ojer.
- Zuzendaria: Peio Arnaez.
- Sarrera: doan. Baina aurrez gonbidapenak eskuratu Oiarde Kiroldegian, Sutegi udal liburutegian, Artzabal-en, Txirristran, eta Aitzagan.
- Antolatzaileak: Usurbilgo

Udaleko Parekidetasun Saila eta Sexu Aholkularitza Gunea.

Informazio gehiago:

- Kale Nagusia, 43 behe (Gizarte Zerbitzuen egoitza)
- Orduetgia: hilabete bakoitzeko lehen, hirugarren eta bosgarren astearteetan, 17:00-19:00 artean (aurretik doan hitzordua hartuta).
- 697 919 516
- sexuaholku@usurbil.eus

Errigora, produktu sorta berriarekin

Zubi berriak eraikitzen segi asmoz abiatu du ikasturte berria Errigora ekimenak, Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuen ekoizpena eta euskalgintza sustatzen duen egitasmoak.

“Ikasturte osoan zehar hartuko dugu patxada eta astia Errigoragile eta Errigorazaleon artean hausnartu eta erabakiak hartzeko. Errigorago joateko amets berri haiek errealitate bihurtzeko ze zubi behar ditugun hausnartu eta marrazteko. Hortik etorriko dira Errigora bera, elkarlan eta erantzukizun konpartituak, erronken neurri eta denborak... berrasmatu eta egokitzeak”, berri eman dute.



Eskaerak NOAUA!ko egoitza egin behar dira, urriaren 26tik azaroaren 14ra. Argazkia: Errigora.

%25a, euskalgintzara

“Zubigintza” aldarripean datorrigu Errigora, ikasturte honi begirako bi kanpainekin. Udaberri partean, “Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura” kanpaina bideratuko du, hau da, oliba olio eta kontserben salmenta kanpaina. Aurretik, udazken honetan, ibilbide luzeena duen “Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka” izenekoa abiatzera doaz urriaren 26an, produktu eskaintza be-

ERRIGORA

Irabazien zati bat Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara bideratuko dute. “Lodosa, Tuter eta Vianako ikastolen bizi-raupenerako, Erriberako AEK indartzeko eta D ereduko lerroak babesteko eta zabaltzeko dinamikak biderkatzeko”

rrituarekin.

Irabazien %25a Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara bideratuko dute. “Lodosa, Tuter eta Vianako ikastolen bizi-raupenerako, Erriberako AEK indartzeko eta D ereduko lerroak babesteko eta zabaltzeko dinamikak biderkatzeko”.

Baita helburu gehiago betetzeko ere: “Errigorago joateko amets berriak marrazten hasi ginen euskararentzako ere.

Euskaldunak sortzeaz gain euskaraz bizitzeko espazioak irabazteko egitasmoak, euskaraz plazaratzeko eta jarrera baikorrak areagotzeko ekimenak eta euskaltzaleok batera aritu eta harremanak sendotzeko ohiturak abiatzeaz ari ginen. Ideia mamituz doa baina zubiak marraztu beharra eskatzen du oraindik. Horretarako ere izango da aurtengo diru-ekarpena”.

Otarrak NOAUA!n eskatu behar dira

25 ekoizleren produktuak dastatzeko aukera izango dugu laster, “Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka” Errigoraren udazken parteko kanpainari esker. NOAUA! Kultur Elkarteak, beste behin ere, bat egin du ekimen honekin. Otarren eskaerak ere kultur elkarte honen bidez bideratu ahalgo dituzue, urriaren 26tik azaroaren 14ra. Ordainketak

otarrak jasotzerakoan egin behar dira, abenduan. Bi produktu kutxa izango dira aukeran; zuria eta beltza. Zuriak berrikuntzak dakartza, beltzak orain arteko produktuak:

Kutxa zuria:

■ Orburuak, zainzuriak, pikillo piperrak, ardoa, oz-

pina, melokotoia almibarrean, pasta, arroza, pikillo piper mamia, patxaran pastak, molineritoak, tomatea olioarekin eta teilak.

■ Prezioa: 50 euro.

Kutxa beltza:

■ Orburuak, zainzuriak, pikillo piperrak, ardoa, ozpina, melokotoia almibarrean,

potxak, aran marmelada, mahats zuku, almendrak, oliba olio, pikillo saltsa, kardo.

■ Prezioa: 50 euro.

Eskaerak:

NOAUA!ren egoitzan, urriaren 26tik azaroaren 14ra.

Informazio gehiago:

errigora.eus

Haira Rivero Arrieta: “Jendea barne diseinuak duen garrantziaz jabetzen ari da”

Mundualdia iragartzeko Usurbilgo Udalak antolatutako kartel diseinu lehiaketa irabazi du Haira Rivero Arrietak. Herritar desberdinez osaturiko mundu koloretsua irudikatu nahi izan du, urriaren 22ko jaialdia iragarriko duen euskarrian.

NOAUA! Zati eta kolore ezberdinez osaturiko mundu mapa irudikatu nahi izan duzu. Izenburua ezinhobeto azaltzen duena.

Haira Rivero Arrieta: Zati ezberdinekin osatu nahi nuen kartela. Ez nekien argazkietatik egin edo ez. Argazkiena bisualegia iruditzen zitzaidan. Ez nuen pertsona bat edo inoren aurpegia jarri nahi, azkenerako pertsona asko baikara. Grafikoagoa egin nahi nuen, ikusitakoaren esanahia momentuan bertan ulertzeko. Kolore desberdinak txertatu ditut hala garelako, eta zatiak baita, batzuk handiagoak besteak txikiagoak arrazoi beragatik.

Lehiaketa honetan parte hartzerantz animatu zinen, diseinu munduarekin loturaren bat duzulako?



Haira Rivero Arrietak Mundualdia iragartzeko kartel lehiaketa irabazi du.

HAIRA RIVERO ARRIETA

“Unibertsitatean diseinu grafikoko lanak egin izan ditut baina lehiaketa batean parte hartzen dudana lehenengo aldia da”

H. R. A.: Barne diseinua ikasten dut, beti izan ditut gustuko diseinu munduko eremu guztiak. Diseinu grafikoa ere aritu izan naiz. Lehiaketaren berri izan eta animatzea erabaki nuen. Ideia sortu zitzaidan,

irabazteko esperantzarik gabe. Ez nuen txapelketa irabazi nuela berri emango zidan telefono deia espero.

Halako lehiaketetan parte hartu izan duzu?

H. R. A.: Unibertsitatean diseinu grafikoko lanak egin izan ditut baina lehiaketa batean parte hartzen dudana lehenengo aldia da.

Diseinu mundua oso zabala da. Barne diseinua ikasten zabilaz, zehazki zer nolako ikasketak dira?

H. R. A.: Barne diseinua, egitura ukitzen ez duen arkitektoa da, baina diseinuan gehiago sakonduta. Espazio bat hartzen duzu eta espazio hori aldatu behar duzu, egitura ukitu gabe.

Irudia hain garrantzitsua den garai honetan halako euskarriek laguntzen dute jendearengana heltzen ezta?

H. R. A.: Barne diseinuan ere diseinu grafikoa sartzen da. Diseinuaren esparru guztiak ukitu behar dira benetan eza-gutzeko eta herrira zabaltzeko zure lana, zergatik ez.

Etenik gabe aldatzen ari den eremua izango da ezta?

H. R. A.: Bai eta modan ari da jartzen. Orain lokal askok nahi dute. Jendea barne diseinuak duen garrantziaz jabetzen ari da. Duela 50 urte ireki zen lokal bat ikusten baduzu, eta duela bi urtekoa, ziurrenik diseinua benetan kontuan izan duenak gehiago deituko dizu atentzioa.

Kartelak Mundualdia iragarriko du. Parte hartuko duzu?

H. R. A.: Aurten agertuko naiz. Festa polita iruditzen zait.

Mundualdia, bete-bete

Urriak 16-25

■ “Emakumeak Afganistan” Sutegiko erakusketa gelan.

■ Egileak: Gervasio Sanchez, Mónica Bernabé. Euskal Fonda.

■ Orduetgia: astelehenetik ostiralera, 17:30-19:30. Larunbatean: 11:30-13:00.

Urriak 20, ostirala

■ 18:00 Garabidek aurkez-

tutako “Arnasa Txikitxuak” dokumental proiektzioa eta solasaldia dokumentalean aztertzen diren nasa eta kixua hizkuntza komunitate-tako ordezkariekin Potxoenean.

■ 18:00 Maite Franko ipuin kontalariarekin “Munduko ipuinak” Potxoeneko sotoko gelan, 5 urtetik gorakoentzat.

Urriak 22, igandea Mundualdia Jaia

Goizez frontoian:

■ 11:30 Alkatearen agurra. Aurkezpena herriko dantzariekin.

■ 12:00 Cultural group taldearen eskutik munduko dantzak.

■ Ondoren, Asociación Internacional Union 5 Estrellas taldearen dantzak.

■ 13:00 Jatorri ezberdinetako herritarrek prestatutako jakien dastaketa.

Azaroak 2, osteguna

■ 18:00 Hitzaldia Potxoenean: “Islamofobia gure gizartean”.

■ Hizlaria: Tarana Karim, SOS Arrazakeria.

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta hainbat herritar.

Irailaren 11, Usurbilentzat ere egun seinalatua

U ne erabakigarriak bizi ditu Kataluniak eta Kataluniako herriak. Herritarrek erreferendum bidez adierazitako borondatea praktikara eramateko bidean dira. Gorabeheratsua izaten ari da prozesu ezaguna. Ikusteke dago nola segiko duen. Ez da halere, bide hau jorratu duen lehenengo ezta azken herria izango. Atzera begira jartzea besterik ez dugu. Egunduz gogoratzen ditugu hainbat estatu, ez ziren ageri munduko mapan iraganen. Hainbat herriek ere ez zuten egungo udalerrizazera. Herritar batek NOAUA!ri eginiko proposamenari helduta, udalerriz honen historiara jo dugu eta gurean ere eremu honetan zer kontatua badela egiaztatu ahal izan dugu.

Usurbildarren “diada”

Herri izaera izan bai noski, baina Usurbil betidanik ez da udalerriz edo “herribildu” izan. 1371n Enrike II.a Erregeak



Usurbil, 1940. urtean. Argazkia: Kutxa Fototeka.

ENRIKE II. ERREGEAREN GARAIAN

“Usurbil
herribildu gisa
1371ko irailaren 11n
fundatu zuten”

“Toro´ko Errian, Kastilla´ko Batzar Nagusietan” idazki ba-

ten bidez, ordura arte Donostiako Jurisdikzioarenpean zen Usurbil egungo Gipuzkoako hiriburutik bereiztea erabaki zuen, kataluniarren egunduz seinalatua, Diada egunduz handia ospatzen duten irailaren 11n.

Herritarren eskaerak

Hortxe beraz Usurbil herribildu gisa fundatu zuteneko

egunduz; 1371ko irailaren 11. Erregeak berak aipatzen zuen gainera, herritarren eskaerak aintzakotzat hartuta erabaki zuela Usurbil herribildu bihurtzea; herri borondateari erantzunez honenbestez.

1371. urtetik, herribildu

“Enrike, Jaungoikoaren graziaz Kastillako eta abar Errege naizen onek... Usurbilgo San Salvador deritzan Kolazioko biztanle, bizilagun ta parrokozaleoi-Bizi zeraten etxeak banatuak eta elkarrengandik urrutiz dituzutela aditzera eman didazute; eta beragatik Kolazio ortan Erri Bildua egin nahi dezutela, bere buruaren jabe izan dedin, orla, alkarren ondoan bizi izanik Nere serbitzua obeto egin dezazuten. Ori dala-ta, zueri mesede ta on egiteagatik, auxe erabaki det”, dio Udalak Usurbil herribildu bihurtu zeneko 600. urtemugaren harira argitaratu zuen “Usurbil 1371-1971” liburuak.

Herri borondateari erantzunez

Gaur ezohikoa dirudiena, Kataluniara begiratu besterik ez dago, herri baten nahia, borondatea betetzea erabaki zuen errege hark. “Zuek, Usurbil´go San Salvador deritzan Kolazioko biztanle, bizilagun eta parrokozaleok egin dezazutela San Salvador deritzan Kolazio ortan, bere buruaren jabe izango dan Erri, berezi, bildu ta ormaduna; eta izena,”Usurbil´go Belmonte” izan dezala; eta leendikan dituzuten muga berak izan ditzala bere muga; eta leengo usadioak izan ditzala bere usadio; eta ez dedilla izan, beste iñungo erriren juridizioko, bere juridizioko baizik; eta ormaz

inguratu dezazutela, nahi dezuten bezela, al dezutenean; eta zuen Erri ortan ipiñi ditzazutela eta izan, zuen Alkate ta Probestu ta Juradu ta Ixkribau eta gañerako Kardogunak, Errian konbeni edo bearko dituzuten bezela”.

“Usurbilgo Belmonte”

“Usurbilgo Belmonte” izena jarri zion udalerrizari. Belmonte, egungo Kalezarrren, orduko “Usurbil-zarra” kokalekuaren itxura ederrari erreferentzia eginez. Ahal zenean, harresitua izatea eskatzen zien eta donostiarren pareko begirunea merezi zutela usurbildarrek. “Begira diezazutela, Usurbil´go Belmonte-

ko erritarroi, Donostia´ko eta Donosti-inguruko erritarrai begiratzen dieten bezelaxe, bai Juridizio, bai Justizi, bai Oitura Onai dagozkien gauza guztietan, eta babestu eta anpara zaitzate, gaur Nik ematen dizutedan Nere Idazki onen indarrez, eta ez dezate egin berak, eta ezta beste iñori egiten utzi ere Gure Idazki onen aurka ezertxo, ez iñun, ez iñola; baizik-eta iraun dezala beti, orain duan indar osoan; eta iñor, Nere Idazki onen aurka ezertxo ere egiten ausar baledi, izan dezala Nere aserrea, eta paga dezaidala, Nere Gordairuarentzat, Kastilla´ko milla dobla urrezko, eta ortaz gañera

zueri ere, egindako kalte guztien bi alako”.

Enrike II.a erregeak leialtasuna eskatu zien belmontetarrei

Hori bai Erregeak ez zion ezere truke aitortu Usurbili herribildu izaera. Leialtasuna eskatzen zien belmontetarrei. “Etzaitzate joan, ez Donostiak, ez beste iñungo errik eska lezaizuteken serbitzutarra, ez orain, ez gero, Nere ondoren etorri litezken Erregeen izenean, Nik Neronek eskatuta bakar-bakarrik baizik”. 1180an Antso Jakituna erregeak Usurbil, eta Zubietako zati handi bat Donostian txertatzeko hartutako erabakia balio gabetu zuen hartara.

XVII. mendera arte, Kalezar zen erdigunea

Orduko Usurbil ez zegoen egituratua egungoa bezala. Herri gunea, egungo Kalezar zuen. Belmonteko Usurbil egun auzotzat jotzen den Kalezarren eratu zen.

Manuel Lekuona hizkuntzalari eta idazleak hala dio, "Usurbil 1371-1971" liburuan. "Usurbil zaarra -gaurko Kalexaar- aukeratu zuan Errege batek Usurbil'go Erri Bildu egiteko: izenez "Belmonte de Usúrbil"; benetako mendi-bixkar politean, bere iru kaleekin, bere orma-arresiarrekin, bere iru portaleekin". Usurbilgo erdigunea, bizkarrezurra zen egun Kalezar izenez ezagutzen dugun ingurua.

Denborak ordea, erdigunea Elizaldera, egun Kaxkoa ezagutzen dugun Usurbilgo erdigunera aldatuko zuen XVII. mende amaieran. "Baña leengo oituraz nunbait, Erriko Batzarrak Elizalde'n, Paris etxeko ariztian egiten ziran. Usurbildarren San



XVII. mendean erabaki zen herriko erdigunea Kalezartik Elizaldera aldatzea.

MANUEL LEKUONA

"Usurbil zaarra -gaurko Kalexaar- aukeratu zuan Errege batek Usurbil'go Erri Bildu egiteko: izenez "Belmonte de Usúrbil"

Salbador Eliz Nagusia ere Elizalde'n zegoen. Agiñagarrentzat ere

egokiago zegoen Elizalde ura... Aizkenik Elizalde'n egin ziran Erriko Plaza ta Erriko Etxea ere; eta orla gelditu zan Elizalde, gaur dagon Erri-buru", dio Manuel Lekuonak "Usurbil 1371-1971" liburuan.

Ezin kokagunea adostu

Ez zuen etxe askorik, baina eliza bertan kokatua egoteak,

biztanleria hazten hasi zela ikusirik, establezimendu publikoak Elizaldera lekuz aldatzearen konbenientziaz hitz egiten hasi ziren. 1661ean kontzeju etxe bat eraiki asmo zuten kartzela eta guzti. Kokaguneaz ordea ezin adostu ibili ziren, Belmonte eta Elizaldeko bizilagunen artean. Azkenean herritik kanpoko erakunde batek, Hernaniko Batzar Orokorrek Elizalden eraikitzea erabaki omen zuten, Paris etxeko hariztian, Eliza atzealdean 1672an. Belmontetarren aurkakotasunez. Eta adi, bi aretoetan banatu zuten. Haietako bat, antza Aginagako kontzeju eta bizilagunentzat.

Denborarekin, Elizalde

Usurbilgo erdigune bihurtu zen

Elizalde herri erdigunearen garrantzia hartzen zihoan bezala galtzen joan omen zen Belmonte. Hitz egindakoa denborarekin errealitate bilakatuko zen. Elizalde bilakatuko zen gerora, Usurbilgo erdigune.

Aginagak kudeaketa propioa zuen

Hori egungo Kalezarrek izan zuen herrigune izaeraz. Ezin aipatu gabe utzi Aginaga. Usurbil herribildu zenetik, Aginaga, bere jurisdikzioaren baitan egon arren, kudeaketa eta kudeatzaile ekonomiko propioak izan omen zituen.

Garai gatazkatsuak bizitakoak omen dira Aginaga, Belmonte edota Elizalderen artean. Jurisdikzio, pribilegio eta askatasunak defendatzeko auzitara jo omen zuen Usurbilek behin, baina antza aginagarrekin kontsultatu gabe. Ondorioz, aginagarrek gastuen ordainketan laguntzeari uko egin omen zioten. Garai hartako Udalak herri erdigunetik kanpo merkataritza guneak edota saltokiak izatea ukatu omen zuen eta horrek ere desadostasunak eragin

omen zituen.

Egoera horretan zela, bertakoentzat egun ezin seinalatuago den 1499ko ekainaren 24an, San Juan Egunez, honakoa adostu omen zuten Kalezarren. Besteak beste: Belmonteko harresi barruko eta kanpoko (Aginaga, Zubieta, Urdaia...) herritarren artean eskubide berdintasuna bermatzea jarduera ekonomikoetan; lehen aipaturiko pleitoaren kostuei aurre egiten denek lagundu zezatela...

Adostasun horretara heldu arren, gatazkarako gai izango zen gerora, 1543an Usurbilgo alkateak Elizalden herri osoan harategia ezartzea debekatu zuenean. Harresiz kanpoko herritarrek aurka agertu omen ziren, eta erabakia bertan behera utzi omen zuten azkenean.

Zubieta, bitan zatitua

Eta zer esan Zubietaz. Administratiboki bitan zatitua dugu egun. Ez omen da antzeko kasurik Euskal Herri osoan. Mendeetako zatiketaz ari gara. Pentsa, Usurbil 1371. urtean herribildu bihurtu zenean, zubietarrek Donostia edo Usurbilekin bat egitea erabaki behar izan zuten. Zati batek Usurbilekin bat egitea erabaki zuen, besteak Donostian segitzea.

Aspaldidanik du Zubietak herri izaera propioa

Bitan zatitua egon arren, aspaldidanikoa du Zubietak herri izaera propioa. Botere handiko elkarte zuen, Komunitatea. Auzotasuna zuten baserriek soilik parte har zezaketen Zubietari eragiten zizkioten kontuetan. Urtero

aldatzen omen zituzten Donostia zein Usurbil aldeetako zinpeko buru edo alkateak. Erabaki historikoak hartutakoa da Zubieta. Aipatzekoa, 1813ko Donostiaren suntsiketaren ostean, Aizpurua base-rrian erabaki zutela hiriburua berreraikitzea, egun ezagutzen dugun lekuan.

Herri Batzarra

Zubietarrek erakunde propioa izan dute gaur arte. Egun Herri Batzar gisa ezagutzen duguna, Donostia aldeko eta Usurbil aldeko zubietarren hiruna ordezkari osatua. Go-goan izan, maiatzaren 7an, zubietar gisa Euskal Herriaren etorkizunaz erabaki ahal izan zuten zubietarrek lehen aldiz, Zubiartean Elkarteak deitutako herri galdeketa.

Giro onean hasi eta hobean amaitu zen Usurbil Cup 2017



Amaitu da 2017ko Usurbil Cup. Urriaren 7an, jai giroan ospatu ziren finaletako partidak. Usurbil F.T. taldeak parte hartzea goraipatu zuen sari banaketa ekitaldian. Kirol ekimen honek, beste behin ere, ehunka haur eta gaztetxo jarri ditu futbolean jokatzen.



Sari banaketako bideoa Youtubeko gure kanalean duzue ikusgai, www.youtube.com/user/noauatb helbidean. Argazkiak, noaua.eus orriko Argazkitegian.

Ederra Hasiera!

Ikastolara hasi ginen lehenengo astean, ostiralean, bueltatxo bat ematera joan ginen gure herrian zehar. Ikastolatik irten eta, lehenengo, Santueneara abiatu ginen.

Ondoren, San Estebandik igaro eta Txokoaldera jaitsi ginen. Bertan egin genuen hamaiketako eta parkean jolasten aritu ginen. Han ginela, txakur txiki gaztetxo bat ere hurbildu zitzaigun gurekin jolasteko gogoz. Oroigarri gisa, Txokoaldeko frontoiaren aurreko maldan argazkiak atera genituen, bai gelaka eta baita maila osokoak ere. Hemen ikusten ari zareten hau da horietako bat. Azkenik, erribera aldetik, Santuenetik barrena, herrira itzuli ginen. Frontoian elkartu ginen denok eta handik etxera joan ginen.



Ikastolan hasi ziren lehen astean, irteera egin zuten. "Txango polita izan zen eta oso ondo pasa genuen". DBH1eko ikasleek argazki hau eta kronikatxoia igorri digute.

DBH1eko ikasleak

Lanbide Eskolan Blend metodologia garatzen ari dira

Lanbide Eskolako Efizientzia Energetikoko sailan, Blend4vet izeneko egitasmoa lantzen aritu dira. Proiektu hau "Blended learning" ikaskuntza metodologian oinarritzen da. Egunotan, Herbehereetako, Ipar Irlandako, Irlandako eta Estoniako Lanbide Heziketako ordezkariak gure artean izan dira.

Blended learning metodologiak Flipped Classroom (FC) izeneko ereduak hartzen ditu kontuan. Hauen bidez garatzen ari diren plataforma birtuala erabiliz ikasgelatik kanpo hainbat ikaskuntza prozesu landu daitezke. Usurbilgo Lanbide Eskolan plataforma hori frogatzen aritu dira.



Usurbilgo Lanbide Eskolako Imanol Gabellanes eta Oier Aranzabal dira proiektu honen sustatzaileak.

Usurbilgo Lanbide Eskolako Imanol Gabellanes eta Oier Aranzabal dira proiektu honen sustatzaileak. "Beraz, Usurbilgo Lanbide Eskolak profesional lehiakorrek hezi-

tzeaz gain, berritzuntza eta nazioartekotzearen aldeko bere apustuarekin jarraitzen du", Zubietako gunekoek NOAUA!ri aditzera eman diotenez.

Liburutegien Egunean, Pello Añorgaren saioa

Urriaren 24an asteartea 18:00etan, Pello Añorga ipuin kontalaria Sutegi Udal Liburutegira hurbilduko da. 6 urtetik gorakoentzat arituko da.

Olatz Korta eta Xabi Zubeldiaren saioa Bihurri Ludotekan

"Mattin eta Mari Euskal Herria ezagutzera gonbidatuak izan dira eta beren bizipenak kontatuko dizkigute. Musika, abestiak, dantza, kontakizunak, asmakizunak eta abar". Urriaren 27an ostirala, 18:00etan Bihurri Ludotekan.



Eguneko Zentroko zerbitzuaren esleipen kontratua, onartuta

Aho batez onartu zuen urriaren 4an Usurbilgo Udaleko udalbatzak egindako ezohiko osoko bilkuran, adineko pertsonentzako Usurbilgo Eguneko Zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emakidaz kontratatzeke espedientea.

Hiru urterako esleipenaz ari gara, urtez urte bost urteraino luzatu ahalko dena. “Guztira estimaturiko kontratuaren bolumen ekonomikoa 1.301.100 euro da (BEZ-ik gabe), eta %4a BEZ (52.044 euro) barne, guztira 1.353.144 euro”.

Erabaki honen baitan, “aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriei onespena ematea” ere onartu zuen aho batez udalbatzak.

Sei plaza gehiago asteburu eta jai egunetan

Eguneko Zentroa ireki zenetik orain arte, GSR enpresak kudeatu du Puntapax Eguneko Zentroa. 18 plaza ditu egun astetartean, 6 asteburuetan. Baina laster adineko herritar gehiagorentzako lekua egongo da. Usurbilgo Udalak Eguneko Zentroko plaza kopurua gehitzea eskatua zion Gipuzkoako Foru Aldundiari, dagoen eskariak egungo



Urriaren 4an ez-ohiko plenoa egin zuten eta aho batez hartu zuten erabakia.

PUNTAPAX EGUNEKO ZENTROA

“Laster adineko herritar gehiagorentzako lekua egongo da. Gipuzkoako Foru Aldundiak urriaren 31n egingo duen batzarrean Puntapaxeko plaza kopurua igotzea onartuko du”

eskaintza gainditzen baitu. Eta eskaerak Diputazioaren baiezkoa jaso du, idatzi bidez momentuz. Urriaren 4ko osoko bilkuran udal gobernu taldeko kide eta Gizarte Ongizateko zinegotzi Jone Urdanpilletak iragarri zuenez, Foru Aldundiak urriaren 31n egingo duen batzarrean Puntapaxeko plaza kopurua igotzea onartuko du.

“Udalak Eguneko Zentroko zerbitzua eskaintzeko konpromisoa agertzen du”

Erabaki horren aurretik onartu du udalbatzarrak Eguneko Zentroko zerbitzuaren esleipena. Egun eskaintzen dituen plaza kopuruarekin. Hilabete amaieran, Foru Aldundiak plaza kopurua haztea onartzen duenean, beharrezko aldaketa txertatuko da esleipen kontratuan.

Udalak Eguneko Zentroko zerbitzua eskaintzen segitzeko konpromisoa agertzen du, eskaintzen dena kalitatezko zerbitzua dela nabarmentzearekin batera.

Urriaren 4an udalbatzak hartutako erabakiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dute laster, baita udal iragarki taulan ere. Esleipen prozesua kudeatuko duen Kontratazio Mahaia ere eratuko dute.

Eguneko Zentroa Helburua:

“Adineko pertsonen eta horien senideen bizi-baldintzak egokiak izan daitezen laguntzea eta bi alderdiei ahalik eta autonomia eta bizi-kalitate handiena ematea”.

Plaza kopurua:

Egun astetartean 18 plaza ditu, asteburu eta jai egunetan 6. Laster, asteburu eta jai egunetan 6 plaza gehiago izango ditu.

Egutegia eta ordutegia:

Urte osoan zabalik, urtarrilaren 1ean, 6an, abenduaren 25ean eta Udalak izendaturiko herriko jai egunean izan ezik.

Ordutegia:

09:30-18:00 (astelehenetik ostiralera); 09:30-17:30 (asteburu eta jai egunetan).

Eskaintako zerbitzuak:

- Ostalaritzako zerbitzuak.
- Oinarrizko arreta pertsonaleko eta eguneroko bizi-modua berregokitzeko zerbitzuak.
- Zerbitzu sanitarioak.
- Zerbitzu psikosozialak.
- Informazio, arreta eta parte hartzeko zerbitzuak.



Laster, asteburu eta jai egunetan 6 plaza gehiago izango ditu.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus



Udal diru-laguntza deialdi berria

Adi, diru-laguntza lerro berria iragarri du Usurbilgo Udalak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun kirol jarduerari eta Kirol Egokitutako egitasmoei zuzendurikoa. Deialdi honen oinarriak urriaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak eman zituen argitaratu. Segidan dituzue xehetasunak:

Xedea:

“Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen oinarri erregulatzaileak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2017 urtean Emakumeen eta Gizonen Berdintasun kirol jardueretako eta Kirol Egokitutako egitasmoak burutuko dituzten erakundeentzat, publikoak nahiz pribatuak, eta pertsonentzat... Diruz lagunduko dena da kirol arloan ekimenak garatzea, baldin eta Usurbilgo Udalak egiten dituen ekimenen osagarri badira



Diru-laguntza lerro berriarekin, emakumeen eta gizonen berdintasun kirol jarduerak eta Kirol Egokitutako egitasmoak sustatu nahi dira.

edo ordezkatzeko badituzte edo erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak badira eta, beti ere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda. Diruz laguntzen diren ekintzak irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

Ez dira aintzat hartuko beste udal partida edo deialdietatik diru-laguntza jasotzen duten ekintzak”.

Eskabideak:

Udal erregistroan, 20 laneguneko epean, urriaren 12tik zenbatzen hasita.

Datorren astean, elkarretaratzea Mikel Laboa Plazan

Astebete barru, urriaren 27a, hilabeteko azken ostirala. Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, euskal presoen zein haien senideen eskubideen aldeko elkarretaratzea egingo da arratsaldeko 20:00etan Mikel Laboa plazan. Besteak beste, Valentziako Picassent espetxean sorterritik ehunka kilometrora segitzen duten Olatz Lasagabaster, Patxi Uranga eta Xuaren eskubideen alde. Urangak hilaren 25ean beteko ditu urteak.

Urtebetetzegatik zoriontzeko ondoko argazkia at-



Patxi Urangak urteak beteko ditu hilaren 25ean.

ra zuten herritarrek, iraila amaierako elkarretaratzean, mezu hau helaraztearekin batera: “Aurten oraindik urtebetetzeko tarta bion artean

partekatzerik izango duzuela espero dugu. Baina hurrengoan Xuak hortzak izango ditu eta orduan handiagoa beharko duzue. Zorionak Patxi!”.

255 langabetu irailean

Abuztuan langabetu kopurua igo ostean, berriz ere beherantz egin du irailean. Estatuko Enplegu Zerbitzuak ezagutzera emandako azken datuen arabera, 255 langabetu zenbatu zituen Usurbilen joan den hilabetean; emakumezko langabetu gehiago (136) gizonezkoak baino (119) eta gehienak zerbitzuetan, 172.

Kontratazioak, gora

Kontratazioak ordea nabarmen egin du gorantz. Abuztuan 375 kontratu erregistratu baziren udalerrri honetan, irailean 564. Ohi bezala ia denak, 521 aldi baterako. 336 gizonezko kontratatu ziren, 228 emakumezko.

Eguneko Arreta Zerbitzuaren araudia, alegazio epean

Usurbilgo Udaleko udalbatzarrek irailaren 26ko osoko bilkuran aho batez onartutako Eguneko Arreta Zerbitzuaren araudia jendaurrean ikusgai dago, “egoki irizten diren erreklamazioak aurkeztu ahal izateko”. Tarte honetan erreklamazioak ez balego, araudia behin betiko onartutaz joko da. Asteotan Udalak zerbitzu berri honen erabiltzaile izan daitezkeenak identifikatu asmo ditu. Asmoa, azarora aldera martxan jartzea litzateke.

Urriaren 28tik 29ra, ordu aldaketa

Urriaren 28tik 29rako gauean, goizaldeko 03:00etan 02:00ak izango dira. Neguko ordutegira egokitu beharko ditugu beraz erlojuak.

Kultur ondarea hobeto ezagutzeko ibilbide aproposa

Argazkian ageri direnek 'Harriak Hitz' izeneko bisita gidatuan hartu zuten parte. Herrian den kultur ondarearen berri jaso zuten.

Usurbil euskal tradizioa eta modernitatea uztartu dituen herria da, "baita euskal sorkuntzarekin konprometitutakoa". Hala dio Udalak. Horren berri emateko, 'Harriak Hitz' ibilbidea prestatu zuten.

Artelanak, bertatik bertara

Dema Plaza, Udaregi bertso-lariaren omenezko eskultura, Jose Luis Zumetaren murala, Mikel Laboari eskainitako garaikurra, Alejandro Tapiaren margoak, Artze anaien lanak... Bisita gidatu hauetan, ordubeteko ibilbidean, bertatik bertara dauden artelanak



Aurreko larunbateko bisita gidatua Dema Plazatik abiatu zuten.

hobeto ezagutzeko aukera dago.

AdiUsurbil aplikazioa

Oraintsu, AdiUsurbil izeneko

aplikazioa aurkeztu berri du Usurbilgo Udalak. Qr kodeen bidez, udalerrria eta udalerriko kultur ondarea ezagutaraztea du helburu.

Kabienek urtea bete du

Usurbilgo freelance eta autonomoen elkarteak urtea bete du jada. Hazten doa bilgunea. Berriki, urtebeteko egonaldiko beka deialdia ere deitu zuten Udalarekin elkarlanean. Eta etorkizunera begira ere, kide berriak erakarri nahian dabilta. Honatx Kabienekoen lehen urtemugako mezua:

"Poz handiz ospatu dugu Kabieneren lehen urteurrena, iaz amets bat baino ez zena gauzatzea lortu baitugu. Elkarrekin egin diegu aurre bidean aurkitu ditugun oztopoei, eta berdin helduko diegu hemendik aurrerakoei ere.

Kabienekoen denok gara berdina, baina parekide ere izan nahi dugu. Orain arte bule-



Abiatu zenetik hona, hazten joan da freelance eta autonomoen elkarteak. Argazkia: Kabiene.

gora hurbildu diren gehienak gizonak direnez, emakumeak erakartzea da gure urte berri-rako erronka. Hori dela eta, bideo honen bidez, gu ezagutzera etortzeko deia egiten

dizuegu etxetik (eta etxean) lanean eta kabi bila ari zareten txoritxoei".

Kabiene sarean:

kabiene.com

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko sarrerak, agortuak

Abenduaren 17an Barakaldoko BEC-en ospatuko den final handirako sarrerak agortu direla berri eman du Bertsozale Elkarteak. Aurreko igandean saldu ziren azken sarrerak. Finalerako autobus eta bazkarirako txartelak eta finalurrekoetako sarrerak bertsosarrerak.eus atarian eskura ditzakezue. Bestela, Usurbildik gertuen, Hernaniko Kitto tabernan, Donostiako Hontza liburutendian edo Zarauzko Txiki Polit tabernan. Informazio gehiago: bertsozale.eus

Bidegile baten lekukotza

Larunbat eguerdian, Eñaut Etxamendi Sutegin izan zen solasean. Kantugintza, hezkuntza, euskara eta aberria hartu zituen hizpide. Nafartarrak taldeak antolatzen hitzaldia eta Ainhoa Larrañaga irakaslea aritzen zen gidari lanetan.



Eñaut Etxamendi eta Ainhoa Larrañaga, Sutegin.

Pilota partidak Aginagan

Urriak 20 ostirala, 19:30ean

[Eskuz Binaka Jubenilak](#)

2. maila

Pagazpe / Aretxabaleta

[Gomazko Paleta Mutil Nagusiak](#)

1. maila

Pagazpe / Loiolatarra 2

[Gomazko Paleta Mutil Nagusiak](#)

2. maila

Pagazpe / Danok Bat

Zubieta, Errebote Txapelketako final handiaren atarian

Enrique Abril Errebote Txapelketako final handirako sailkatu dira zubietarrak, urriaren 12an etxean jokatu zuten finalaurrekoa irabazi ostean. Villabonako Behar Zana taldekoekin lehiatu, eta esandakoa, 13-3 irabazi zieten zubietarrek.

Final handia, igande honetan, urriaren 22an jokatuko da, igandez 11:00etan, beti ere eguraldiak laguntzen badu. Oiarztunen dute zita zubietarrek. Donibane Lohitzuneko Luzean taldekoekin lehiatuko dira.

Orain arteko emaitzak

Lehen fasea:

Luzean 13-2 Behar Zana.
Txost 5-13 Zubieta.
Zubieta 3-13 Luzean.



Eguraldiak laguntzen badu, igande honetan jokatuko da finala Oiarztunen. Luzean taldea (Donibane Lohitzune) izango da aurkaria.

Behar Zana 1-13 Zubieta.
Luzean 13-3 Txost.

Sailkapena:

1-Luzean: 6.
2-Zubieta: 5.
3-Behar Zana: 4.
4-Txost: 3.

Azken fasea

Finalaurrekoa:

Zubieta 13-3 Behar Zana.

Finala:

Urriaren 22an igandea, 11:00etan Oiarztunen. Aurkaria: Luzean taldea (Donibane Lohitzune).

Futbola

Haranen

Urriak 21, larunbata

■ 09:30 Kadete neskak: Usurbil F.T.-Zarautz K.E. "A"
■ 11:30 Infantil neskak: Usurbil F.T.-Hernani C.D.
■ 11:30 Alebin mutilak: Udarregi 5-Urmieta 5.

Eskubaloia

Kiroldegian

Urriak 21, larunbata

■ 10:00 Alebin neskak, Buruntzaldea: Udarregi 5B-Udarregi 5C.
■ 11:15 Infantil neskak, Gipuzkoa: Udarregi B-Saieko.
■ 12:30 Infantil neskak, Gipuzkoa: Udarregi A-Bergara.
■ 15:45 Kadete neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Pulpo EK.
■ 17:30 Jubenil neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Pulpo EK.
■ 19:30 Senior mutilak, 1.nazionala: Usurbil K.E.-Gure Auzune.

Urriak 22, igandea

■ 11:30 Infantil mutilak, Gipuzkoa: Usurbil K.E.-Saieko.

Aginagako mus txapelketa



Aginagako San Praixkuetan, Atarialde Elkartean ospaturiko mus txapelketako finalistak dituzue ondoko argazkian. Errasti eta Manzisidor txapeldunak, eta Torre eta Unsain txapeldunordeak.

Haimarren omenez

20 urtez maila profesionalen lehiatu ondoren, uda honetan erretiroa hartu du Haimar Zubeldia txirrindulari usurbildarrik. Zubeldiaren lagunek eta jarraitzaileek omenaldia egingo diote azaroaren 18an. Bestelako ekitaldien artean, omenaldi bazkaria antolatu diote.



Azaroaren 18an omenaldia egingo diote Haimar Zubeldiari.

Bazkarirako txartelak, salgai

Omenaldi bazkaria Aginaga Sagardotegian egingo da, eguerdiko 14:00etan hasita. Hara joateko doako autobus zerbitzua jarri asmo du anto-

lakuntzak. Otordurako txartelak salgai izango dituzue Bordatxon azaroaren 5era arte. Bi menu izango dira aukeran:

■ Helduentzat menua: 30 euro, sagardotegiko menua.

■ Haurrentzat menua: makarroiak, oilaskoa, izozkia. 15 euro.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperboruru 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Santuenea auzoan pisu berri-tua alokairuan. 2 logela. Sarrera abenduaren 1etik. Nomina, fidantza 2 hilabete. Prezioa: 580 euro. 667 438 145

3 logelako etxebizitza alokatzen dut Muna Lurra kalean. 943 36 53 58 / 661 43 63 53

Gela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. Gizaseme langile edo jubilatu batentzat (nahiago euskalduna). 687 348 223.

Kalezarren etxebizitza alokagai. 3 logela, garajea eta trastelekuarekin 673 547 332.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600

euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan.

630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe ko karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m² karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari bat behar da, karta-rekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677

624 971.

Emakume eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakume lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauzez zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067



Zorionak Nora! Urriaren 10ean 9 urte bete zenituen, Happy Birthday!! Ondo pasa eta muxu handi bat familia osoaren partez.



Zorionak Victor! Urriaren 23an 5 urte!!! Ondo pasa eta muxu asko etxekoan partez.

Heriotzak

Joxe Zubiria Aduriz
81 urterekin hil zen
urriaren 12an
Usurbilen



OHARRA: 2017ko urriaren 27an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: urriaren 23an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketa egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euska sukaldearen ezaqutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa

aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, orduakoa lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritze-ko,... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

BESTELAKOAK

Gitarra klaseak ematen dituen

pertsona baten bila gaude. 657 795 378.

Irailaren 20an, goizeko 9:30ean Donostiara doan Usurbilgo autobus geltokian poltsa gorri batean galtza bakero batzuk utzi nituen. Norbaitek ikusi edo hartu badu deitu, 657 711 335 (Maite).

Irailaren 13an kakatua txiki bat (nifra) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadara salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosi nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotzeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korroes - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Stegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 19 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 20 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 21 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 22 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astelehena 23 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteartea 24 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 25 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Urriak 19 - urriak 29

Osteguna 26 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 27 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 28 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 29 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urria

20 ostirala

- "Emakumeak. Afganistan" erakusketa Sutegin, 17:30-19:30.
- "Arnasa txikitxuak", dokumental proiektzioa eta solasaldia. 18:00etan.
- Maite Franko ipuin kontalaria Potxoeneko sotoko gelan, 5 urtetik gorakoentzat. 18:00.

21 larunbata

- "Emakumeak. Afganistan" erakusketa Sutegin. 11:30-13:00.
- Matematika manipulatioen tailerra. Aginagan.

22 igandea

- Mundualdia Eguna.

"Emakumeak. Afganistan" erakusketa zabaldu dute Sutegin

Astehenean inauguratu zuten "Emakumeak. Afganistan" erakusketa Sutegin. Izenburuak aditzera ematen duen moduan, emakumeek Afganistanen bizi duten errealitate gogorraren erakusgarri da. Gervasio Sanchez eta Monica Bernabe argazkilarien irudiekin osatzen da erakusketa. Urriaren 25era arte egongo da Sutegin ikusgai.

Talibanak agintean izan ziren garaian, etxetik kanpo lan egitea, ikastea eta laguntza medikoa jasotzea debekatu zieten emakumei. "Murrizketa horiek eskandalizatu egin zuten Mendebaldea, nahiz eta Afganistaneko emakumeek egunero bizi duten benetako dramaren icebergaren tontorra besterik ez izan. Erakusketa honetan ikusten da emakumeen aurkako indarkeria Afganistanen familian bertan hasten dela eta endemikoa dela, eta ez du zerikusirik talibanak agintean egotea-



Mundualdia jaialdiaren baitan, "Emakumeak. Afganistan" erakusketa ipini dute Sutegin.

rekin edo ez egotearekin", Euskal Fardoakoek aditzera eman dutenez. Argazkiak 2009tik 2014ra bitartean eginak dira.

Bisita-orduak:

- Non: Sutegiko erakusketa gelan.
- Astehenetik ostiralera, 17:30-19:30. Larunbatean 11:30-13:00.
- Antolatzailea: Mundualdia, Udala.

"Arnasa txikitxuak" dokumentala Potxoenean

Filmak Andeetako nasa eta kitxua hizkuntzen indarberitze kulturalan diharduten eragileen testigantzak jasotzen ditu.

Urriak 20 ostirala

- 18:00etan, Potxoenean. Proiektzioa eta ondoren solasaldia.
- Antolatzaileak: Garabide, Mundualdia.

Datozenak

Tokikom Sariak 2017, urriaren 27an Sutegin

TOKIKOM-ek, toki komunikabideen bateraguneak, euskarazko herri komunikabideak sustatzea du helburu.

Sariketa honetan, tokiko hedabideetan egiten diren kazetari lanak goraiatzeko dira. Lehen edizioan, NOAUA!k irabazi zuen Eduki Onenaren Saria, 'Udarregiren omenez' izeneko gehigarriengatik.

Tokikom Sarien bigarren edizioa Usurbilen ospatuko da, urriaren 27an Sutegin. Sari banaketaz gain, bi solasaldi egingo dira.

- Orduetgia: goizeko 9:00etatik 13:30era.
- Antolatzaileak: Tokikom, NOAUA! Kultur Elkartea.

"Sexijentziak Askatuz" antzerkia eta solasaldia

2016, urtean Donostiako Poltsikoko Antzerkiaren Lehiaketan, bigarren saria jaso zuen Bazan Behin Clown konpainiaren lan honek. Sexu harremanen inguruko gaia jorratzen duen formatu txikiko antzezlan da. Urriak 27 ostirala, 18:30ean Sutegin.



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus



Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil



JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar * Eroski City
- * Aginagako Arrate taberna
- * Zubietako Alamandegi taberna

Edo deskargatu ezazu www.noaua.eus-etik/!

tren eta autobus

noaua

ordutegia 17/18

TOKIKOM SARIAK 2017

TOKIKOM-ek, toki komunikabideen bateraguneak, euskarazko herri komunikabideak sustatzea du helburu. Tokikom Sarien bigarren edizioa Usurbilen ospatuko da, urriaren 27an Sutegin. Sari banaketaz gain, publizitateari buruzko mahainguru bat egingo da eta Flandriako hedabide baten esperientzia gertutik ezagutzeko aukera izango dugu.

Antolatzaileak: Tokikom, NOAUA! Kultur Elkartea.

Urriak 27 ostirala
Goizeko 9:00etatik 13:30era, Sutegin.



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Borda Berri Kalea, 2 3º A
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688
jon.elorza@hotmail.com

SAN ESTEBAN 5, BAXUA

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



Antonio
URRUZOLA
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

USURBIL

J. R. IBARGOEN S.L.

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, Baxua USURBIL



antenas
Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3 B 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITZAGARRIAK
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

JOSEBA
ARANGUREN
ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN DROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFINATZAKO OREHIOAK · KOKHUNEO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



ventamix

943 59 32 58
600 80 30 05

LUMON
Banatzaile Ofiziala

info@ventamix.com · Ugaldea polig. 18, USURBIL